

9

Ttotte



Jolasean zebilela, pitzadura batean erori zen Totte. Bertan, maitagarri batek desio bat eska zezakeela esan zion eta Ttottek zera eskatu zuen:

- *Ukitzen dudan guztia txori bihur dadila!*

Esan eta egin. Ttottek **maitagarria** ukitu zuen eta **txantxangorri** bihurtu zen.

Ttotte pozarren zegoen. Ukitzen zuen guztia txori bihurtzen zen!

Aste bete pasa ondoren, bere guraso, lagun eta irakasle txori bihurtu zituen. **Matematika-irakaslea**, **loro** bihurtu zuen eta etengabe errepikatzen zituen biderketa taulak.

- *Bi bider bi, lauuuu! Hiru bider bi, sei!!! Lau bider bi, zortzi!!!*

Ezin zuen kalean txakurtxo bat laztandu ere egin, **pelikano** bihurtzen baitziren **txakurrak** ikutzearekin batera.

Futbolean ere ezin zuen Ttottek jokatu, **baloia** ostikada bat eman eta **antzara** bihurtzen zuelako.

Aspergarria zen txoriz inguratuta bizitzea.

Orduan, bere buruari kax-kax, bi kolpe eman eta bera ere txori bihurtzea erabaki zuen Ttottek. Baina bere ahalmenak ez zuen bere buruarekin funtzionatzen.

Bakar-bakarrik zegoen Ttote txori artean. Etxean asper-asper eginda zegoela, txantxangorri bat ikusi zuen leihoan.

- *Maitagarri! Zu al zara? Ez dut txori gehiago nahi! Gauzak berriro lehen bezala izatea nahi dut!*

Txantxangorria, orduan, Ttotteren buru gainean jarri zen eta mokokada bat eman zion.

- *Otx!*

Orduan esnatu zen Ttote ametsetik : ama ari zitzaion ilea laztantzen.

Gelako leihoan txantxangorri bat zegoen. Eta sinetsi edo ez, keinu bat egin zion Ttotteri begi bat itxi eta irekiaz.

HARKAITZ CANO Ttote (moldatua)

pitzadura: lurreko irekidura.



Irakurgaia lantzen

ULERMENA

1- Erantzun galderei.

- Zer gertatu zitzaion Ttotteri jolasean zebilela?
-
- Nor topatu zuen bertan?
-
- Zer esan zion maitagarriak Ttotteri?
-
- Zer eskatu zuen Ttottek?
-



2- Lotu.

- Zer bihurtu zuen Ttottek...

☐ 1 maitagarria

☐ 2 matematika-irakaslea

☐ 3 baloia

☐ hontz

☐ antzara

☐ pelikano

EGITURA

3- Galderak erantzun.

- Pozik al zegoen Ttote bere ahalmenarekin?
-
- Zergatik?
-



4- Nola amaitu zen dena?☐

Maitagarriak ahalmena kendu zion Ttotteri.

☐

Ttotte esnatu egin zen.

5- Eta zure ustez ...

- ametsa izan al zen dena?

-

- zergatik uste duzu hori? Azaldu.

-

AMAIERA**6- Eta zuri...**

- gustatzen al zaizu ipuinaren amaiera?

-

**7- Asmatu beste amaiera bat.****NIRE AMAIERA**